



# EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

## INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

Egilea - Auteur : Daniel Landart  
Iturria - Source : 2000ko urriaren 14an Mixel Labéguerie-ri egin omenaldia kari Daniel Landartek eman mintzaldiaren transkripzioa  
Urtea - Année : 2000

### Mixel LABEGUERIE eta Eskualtzaleen Biltzarra

Gaur omentzen dugun Mixel Labeguerie jaun mediku zenaren ezagutza, Iholdi Antsoenea ostatuan egin nuen, 1969ko apirilaren 7an, Bazko astelehen kari, Mixel Itzaina eta Kati Malharin ezkondu ziren egunean.

Afal ondoan, Mixel Labeguerie-k keinu egin zidan : « Zato, zato, Daniel..., Xalbadorrek ezagutu nahi zaitu ». Egitate zinez bitxia : ordurarte ez bainintzen egundaino Labeguerierekin egona, ez baikinaren presentatuak izanak. Dena dela, zalumilakara hurbildu nintzaien. Xalbadorrek, frango hotz eta motz, erran zidan « Herria » astekarian izkiriitzen nituen poesiak eta artikuluak irakurtzen zituela eta holo-hola segitzeko....

Eta hantxet utzi ninduen, deputatu ohiarekin bekoz-beko. Nik, orduan, golkoan nuena deblauki atera nion : « miresten nuela kantaria baina zergatik bada bidez aldatu zen politikaria ?! » Garai hartan, ni, errotik Enbata eskolakoa bainintzen, eta garbiki mintzatzeko, gure buruzagi batzuk segurik ez baitzuten hanbat laudatzen Labeguerie...

Sekulakoa izan zen haren errefera ! Uste dut goizalde arte mintzatu zitzaidala..., hastapenean goxoki eta legunki, geroxago kolera ilun batek hartu zuen, trufakor eta bortitz bilakatuz, berantago, berriz jabaldu zen, gatuño bat irudi, baina beti ari, eta nola ari, mihi azpiko zaina trenkatzerakoan !

Hitz dizuet zinez inarrosi ninduela ! Prediku luze hartarik segurtamen bakar bat gogoan atxikitzekotan, hauxe izanen da : euskararentzat oroz-gainetik zeukan amodio sakratua !



## EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

Ikus dezagun orain, laburzki bada laburzki eta gaingiroki, Mixel Labegueriek hogeitaz kudeatu duen Euskaltzaleen Biltzarreko historia. Horretarako bi iturri atzeman ditut : hain zuzen Mixel Itzainaren liburu aberatsa (1) eta bereziki ezin aski estimatuzko « Herria » astekaria.

Mixel Labeguerie, 1960ko urtarrilaren 21ean hautatua izan zen president. (Orduan oraino lehendakari hitza ez zen hemen gaindi erabiltzen). Egun hartan, hiru bilkura egin ziren Baionako Euskal Erakustokian. Hiruak Louis Dassance jaunaren buruzagitzapean : Euskaltzaleen Biltzarra, Ikas eta Eskuararen Eguna.

Aintzineko urteko irailaren 5ean, Itsasun, izendatuak baitzituzten Euskaltzaleen Biltzarreko buruzagiak, hona nola antolatu zuten beraz bulegoa :

Ohorezko president : Louis Dassance jauna. President : Mixel Labeguerie jaun medikua. President-ordeak : Guillaume Eppherre jaun kalonjea eta Etienne Pochelu Makeako jaun auzapeza. Idazkari : Jean Hiriart-Urruty jaun apezka. Idazkari-lagun : Simon Haran jauna. Diru-zain : André Ospital jauna. (2)

Urte bereko agorrilaren 11ko Herria astekarian, M. Labegueriek artikulu bat egin zuen « *Aurthen nola lehen...* » izenburuarekin. Besteak beste, hauxe dio : « *Joan den urtarrilean, biltzar-buruak bulegoa berritu duelarik, ez du nahi ukan gure biltzarren lehen xede eta helburuetarik baztertu. Ez ! Bainan nahi ukan du, aspaldidanik hain kartsuki lanean higitu diren, Dassance eta Zerbitzari bezalako gizoneri, segida bat eman geroko, eta laguntza bat oraiko bereko. Hara nola bulego berriaren xedea zen, orai artio lanean bakarrik ari izan diren gizonen laguntzea, eta ondoko egunetan, Jainkoaren graziarekin, sail berri batzueri lotzea. (...) Horiek hola, biltzar buruaren lehen lana izan da, orori hoben edo kargu zerbait ematea, lanaren partikatzea eta zatikatzea : komixioneak egin dira. »*

### **1960ko buruilaren 1ean, Biltzar Nagusia Arbotin**

Buruilaren 8ko Herrian irakur daiteke : « *Arboti pinpirinean ginduen joan den ostegunean, dena bandera, eta pareta askotan gorritz emana zen : « Mintza eskuaraz egun bederen ». Alde guzietarik jin da jendea trumilka : otoen kokatzeko lanak ziren. (...) Labeguerie jaun presidentak aipatu ditu laburzki aurten hil hiru eskualzale handi : Leremboure saratar jaun mediku zena, José-Antonio Aguirre Euskadiko president zena ; Louis Inchauspé kontseilu jeneraleko president zena ; aipatu ditu haien mereximenduak. (...) Zerbitzari usaian bezela mintzatu da haurren 1816 eskuarazko lanez. (...) Salatu dauku haurretan hamarretarik seiek ez zakizkitela asteko zazpi egunak eskuaraz ; eta heietarik baten frantses makurra aipatzean, hauxe adiarazi dauku : « Lehen entzun izan dut eskuararekin ez zitakela joan Baionatik haratago. Nago eskuararen orde ikasi duten frantses kakolarekin Baionaraino ere heltzen ahalko den nehor ! ». (...) Labéguerie jaun presidentak Zerbitzari jaunaren hitzak finkatu ditu, parte segurik, familiak sustatzen zituztelarik haurreri eskuararen irakasterat. »*



Noiz behinka, Zerbitzarik, euskaltzaleen artean airostasun pixka bat sortu nahiz, haurrek idatzi lerrorik pollitenak eta bitxienak irakurtzen zituen. Hona batto : “ *astoa Jesus haurrari beha zagon bere umea ukan balu bezala* ”.

## **1961ko buruilaren 7an, Biltzar Nagusia Arrosan**

Arrosako eguna nola iragan zen ez dezakegu erran, “Herria”-ren bulegoko artxiboetan iraileko bi zenbaki eskaz baitira, zorigaitzez.

Baina agorrilaren 3ko Herria deitzen da “Numéro spécial de l’Eskualtzaleen Biltzarra pour 1961” eta Louis Dassance jaunari esker jakiten dugu : aspaldiko urtetan Eskualtzaleen Biltzarrak lau orriadeko zenbaki berezi bat urtero moldatzen duela eskuarazko lanez berri emaitako eta euskararen alde mintzatzeko.

Zenbaki horretan, Labeguerieren bi artikulu badira, bata Azkaineko bertsulari biltzarrean egin zuen mintzaldia dakar, besteak urte hartan zendu Zerbitzari goresten du.

Bertsulariez dio : “*Bertsolariak, zuek zaizte muga baten bi aldetan, mintzaira beraren, gogo beraren zerbitzari eta aphaintzaleak. Zuek zaizte hiltzera doan eskuara xaharraren azken urgulua. Horren gatik nahi zaituegu egun ohoratu eta goretsi. (...) Gutarten Espainolik edo Frantsesik badenez ez dugu jakin nahi. Mugarik badenez ez dugu jakin nahi. (...) European mugak kentzea aipatzen dute. (...) Ken bezate gure arteko muga hori. Bainan eskuara galtzen bada, muga bat handiagoa, goragokoa da altxatuko odol bereko haurriden artean, bi mintzairen arteko muga. Zorigaitz latzgarriagorik baditakea Ama beraren semen artean? Dei hau egiten dautzuet beraz orori, bihotzaren zolatik: ken Eskualdunen arteko muga ! bainan atxik eskuara ! »*

Jean Elissalde-Zerbitzari aipatzean, hauxe idazten du : “*Duela zonbait urthe, deliberatu zuelarik Garraldako gainean Ama-Birjinaren egoitza bat egitea, adixkide multxo bat gomitatu gintuen phesta pollit hortarat. Eta geroztik, urthe guzietan, Garraldako Andre-Dena-Mariaren phesta egunean, Eskual Herriko laur hegaletarik jiten ginen Gereziatalat. Goizeko beilaren ondotik, apheztegitatik biltzen ginen, eta hor, jaun erretoraren mahain zabal, aberats eta laketaren inguruan, zer hizketa kartsuak, zer auziak, zer kalapitak, zer irriak ere, hots ! zer oren orhoitgarriak, zer oren goxoak ! Apheztegi batean, ez zitaken amets bilkura harrigarriagorik, jende suerte desberdinagorik, bai jitez, bai opinionez. Bakotxak aditzen zituen kontrakoaren ganik, bai bereak, bai asto beltzarenak ! Arrazoin guzien emaita haizu ginen, salbu hor ez zirenez gaizki mintzatzea. Eta Zerbitzari hor zagon, denen erdian, gehienetan ixilik, galerna altxatzerat zoalarik, ditxo batez jabaltzen zuela, edo botoila bat harturik, edari xorta batez sua ezititzen zuela. Zer etxeko-jauna ! Zer adixkidea !”*



## **1962ko agorrilaren 30ean, Biltzar Nagusia Uztaritzen**

« Egun iguzkitsu distiranta. Uztaritzek bozkarioa bazarion. (...) Biltzartiarri Gilbert Auroy jaun auzapezak egin diote bere agurra. Erdalduna delarik, nahi ukan du urhats hori eskuaraz egin polikiago, eta orok atsegin hartu dugula erran behar dugu goraki. Mixel Labéguerie jaun presidentak eman dio plantako ihardespena bere esker kartsuenekin... Eskualdun batzuek eskuara ahazten duten kenkan, bihotz altxagarri da gutarterat heldu zonbait erdaldunek eskuara ohoratzen baitute, hala nola Uztaritzeko jaun auzapezak eta Baionako jaun apezpikuak. Gero urteko berri zonbait eman ditu. Jean Etchepare jatsuar idazle gaztearen, Léon Léon jaun kalonjearen, Pepito Alonso kantariaren heriotzea, Mixel Eppherre lagunaren ezkontza, « Musée Basque » delakoan Haritschelhar jaunaren sartzea. » (Herria, 1962/9/6).

Bazkal ondoan, Louis Dassance jaunari egin zioten omenaldia. Labéguerieren eskerren ondotik mintzatu zirenak : Antonio Arrue jaun abokata euskaltzaindiaren izenean eta Telesforo de Monzon jauna. Azken honek, “bururatzean, batasuna galde egin du, zazpiak bat izan ditezen, Jaungoikoa lagun ! Eta, brau, denek xutik kantatu zuten « Gernikako Arbola ».

## **1963ko buruilaren 5ean, Biltzar Nagusia Donibane-Garazin.**

« Hiria eskual banderez apaindua zen asko tokitan, eta ez zen karrikan jendeeskasik. Emeki-emeki bazoatzin Vauban sala ederrari buruz » dio buruilaren 12ko Herriak.

Urteko lanak aipatzearekin, presidentak « aitortu du Biltzarrak berak ez duela muntatu ez bertsulari, ez kantari bestarik, ez eta euskarazko libururik atera ”.

« Eskola solas – Labéguerie jaunak laburzki erran du zer tira-birak dituzten Parisen, ez legerik, ez manurik ezin ardietsiz eskuararen alde. Eta berriz ere dei bat igorria izan da buruzagi askori ! Agian orai artinokoek baino zorte hobea izanen du hunek ! » dio Herriako kasetariak.

## **1964-ko buruilaren 10ean, Biltzar Nagusia Donapaleun**

« Labéguerie jaunak finkatu ditu Louis Dassance jaunaren erakaspenak, baizik eta guti girela eskuararen alde lanean ari girenak, eta ez dugula aharran galdu behar ez denborarik ez indarririk. Goretsi ditu bertsulari egunak muntatzen dituzten herriak, aipatu ditu bertsulari berriak, eta Aldude laudatu, nahi baititu gazteak bertsu egiterat sustatu. Marie-Jeanne Minaberry andereak hainitz egin du bertzalde radorat gazteen ekar-arazteko eta harek salatu Dominique Esponden talendua. »(Herria 1964/9/17).



Biltzar nagusian mintzatu ziren beste arduradunak : Louis Dassance (Amikuzeko eskualtzale bipilez), André Ospital (diru konduer), Pantxo Etchezaharreta (radioaz), Jean-Pierre Curutchet (teatroaz), Delzangles jaun abokata (Pariseko berriez) , Ibarrondo jauna (Parisen jarraitzen duen « Comité de défense des langues et cultures régionales » elkarteak eraman urratsez), Janamari Malharin anderea (eskoletako haurren euskarazko lanez), Sauveur Narbaïtz (Ikas batasunaren xedeez). Izen hauek ematen ditut, Labeguerie-ren inguruan, urtez-urte, lan baliosik egin baitute euskaldungoaren alde.

## 1965-ko buruilaren 9an, Biltzar Nagusia Maulen

Urte hartan, Eskualtzaleen Biltzarrak bildu zuen bestorduz baino aipaldi gehiago ! Uztailaren 22ko Herrian, “Zazpi gazte” izenpetu artikulu bat horrelaxe hasten da : *“Lafitte jauna... Elgarretarat bildu giren gazte batzu mintzatu gira laster berritz ukanen dugun Eskualtzaleen Biltzarrak. Elgarri ginion ez girela geio hartarat joanen. Huna zerendako. Beti gauza bera da... Han biltzen gira... Egun bat galtzen dugu... Kotisa pagatzen... Prefetari « motion » bat igortzen... Eta hortan fini, beste urte artio. Ez dugu pitsik ez Dassance eta ez Labeguerie jaunen kontra... Biek egin dute, orai artio, egin behar zena... Bainan, orai garbiki ageri da, Eskualtzaleen Biltzarrak, oraiko moldetan, ez duela deus « pisurik », prefetaren eta haren buruzagientzat. Orroitz gira nola Uztaritzeko biltzarrean, Labeguerie jaunak alimaleko lana hartu zuen 800 sinadura biltzeko, heien potretetan hartzeko, horien denen prefetari igortzeko... Eta zer ondorio ? Deubru pitsik ez !... Edo hobeki, urte hartan kendu dute eskuara bakaloreatik. » (...) Eta proposamen batzu egin zituzten.*

Lafitte kalonjearen erantzuna : *“Gazte maiteak, zuen letra ezarri dut, bainan ez naiz batere zuenkin akort. Gobernuaren ganik galde eginak ardietsi ez dituzten kazeta, radio, bide-tindatze, batasun eta kargu guziak behar badira kendu, banago zer geldituko den xutik ? Zuek zer ardietsi duzue hain minkorki mintzatzeko ? Zuek ere norbaitek behar othe zaituzte kendu ? Ene iduriko, Eskualtzaleen Biltzarra ez da suntsitu behar. , azkartu eta berritu. “ (...)*

Artikulu horietarik landa, beste batzu izan ziren, idazle zituztela : Jean-Louis Davant, Jean-Baptiste Larramendy dit JIBLE donamartiritarra, Eñaut Etchamendy, Teodoro Hernandorena.

Dena dela, 65-ko buruilaren 16ko Herriak titulu haundi batez laburbiltzen du biltzar nagusiaren giroa : *« Xuberotarrerri esker Eskualtzaleen Biltzarra Maulen bere bideari jarraiki zaio alegrantzian. »* Jakiten dugu halere bi « motion » baztertuak izan zirela : *« Bi « motion » presentatuak izan dira. Jaun Presidentak irakurtu ditu, erranez berak ez zituela onhartzen ahal, ez zirelakotz akort ez bulegoak hartu xedekin, ez batasuneko legekin, ez eta Biltzarreko usaiekin. Esku-altxaka majoriak baztertu ditu. »*



## **1966ko buruilaren 8an, Biltzar Nagusia Ezpeletan**

*“Herria alegrantziazko jauntzitan emana zen. Alimaleko eskual-ikurrin edo bandera bat bazen erdi-erdian landatua. Karriketari lore-jergada zernahi airean. Eta merkatu lekuan dizkak kantuz errepikan goizean goizik, gure eskual msika turrustan zariotela. Salan berrehun bat aditzale, bai alde hautakoak, bai eta zombait Nafarroatik eta Gipuzkoatik jinak.” (Herria, 1966/9/15).*

Bilkura hastean, Dassance jaunak oroitarazi zuen 1930ean ere E.B.a Ezpeletan ospatu zela eta orduan ezarri zutela Duvoisin kapitainaren orhoit-harria.

Geroxago, Labeguerie presidentak, besteak beste, erran zuen “Euskaltzaindiarekin eskuz-esku ibili behar dugula“. Janamari Malharin anderea eskoletako haurren lanez mintzatu ondoan, Labegueriek *“goretsi ditu eskoletan egin entsegu guziak, eta bereziki gobernuko 24 eskolek aurthen egin duten indar berria. Eder zaio ere ikustea nola ez den eskuarari buruz lehenagoko gerlarik eskolen artean.”*

## **1967ko buruilaren 7an, Biltzar Nagusia Baigorriin**

Urteko beste berrien artean, luzaz aipatua izan zen eskuara gure elizetan. *“Narbaitz jaun kalonjeak erakutsi du nola eskual liturgia aintzina doan bere sailean, eskualdun apez eta fraile multxo baten lan gaitzari esker, jarraikienak direlarik Pierre Andiazabal eta aita Iratzeder. Erromako buruzagiek galdatu dute mintzaira bera derabilaten herrialdeetan ez dadien izan itzulpen bat baizik, eta horra zertako, Sagarako otoitzentzat, gure zazpi probintzietako apez zombait arizanak diren, itzulpen bakar horren egiten. (Herria, 1967/9/14).*

Labeguerie buruzagiak eskerrak bihurtu zituen Baigorriaraino jinak ziren eskualtzale guzietan eta hauein artean bazen bat, Lopez de Mendizabal, mende hastetsuan lehen E.B.n aurkitzen zena !

Xalbador, Mattin eta Etxahun-Iruri bertsutan ari izan ziren bai eta kantari Erramun Martikorena *“bere boz mehe eta ozena biziki polliki erabiltzen dakiena”*.

## **1968ko buruilaren 12an, Biltzar Nagusia Azkainen**

*“Labeguerie jaunak bihotzetik aipatu ditu, gaurko egunean Gipuzkoan eta Bizkaian gaizki erabiliak, preso altxatuak eta desterratuak diren gure anaiak.*



## EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

*Horietarik anitz ez dira batere hobendun. Edo gaztigatuak dira bakar-bakarrik beren pentsa-maneraren gatik. Horietarik anitz dira eskualtzaleak... ez da beraz politika-alderdikarian sartzea, hobengabe eta eskualzale diren anai dohakabe horien alde boza altxatzea.*“

*Biltzartiar guziek onhartu dute eta beroki esku zartaz txalotu Labeguerie jaunak proposatu xedea.*

Oroitu behar da urte hartan E.T.A.k lehen aldikoz gizon bat erahil zuela : Melinton Manzanos, Gipuzkoako polizaburua.

*Galdezko aktetan, Manex Pagola jaunak jali du bere iduripena, ez ote laiteken hobe, politikan kargudun dena ez izaita ber-denboran kargudun Eskualtzaleen Biltzarran. Hola, nehor ez litake E.B.tik kanpo egon, horren buruzagiek luketen politika kolorea gatik. Pagolaren pentsa-moldea, gero hobeki ikertzeko xedearekin, bazterrerat eman dute.*“ (Herria, 1968/9/19).

Buruzagi berriak : Grégoire Eppherre, Jean-Baptiste Dirassar eta André Luberriaga.

### **1969ko buruilaren 4ean, Biltzar Nagusia Kanbon**

Buruilaren 11ko Herria astekarian, Mixel Itzainak berriak xeheki ematen ditu. Besteak beste irakur dezakegu :

*« Labeguerie jaunak bulegoko lagunen izenean galdegin du, heldu den urtean, Eskualtzaleen Biltzarra igandearekin egin dadin, denak jin ahal ditene eta ere molde berrian. Galdegin du ere E.B. izan dadien eskuararen alde ari diren batasun guzien laguntzaile eta biltzaile, hemendik aitzina, Kontseilu Generalak ez baitu dirua elkarte nagusi bati baizik emanen. Biltzarrak onartu ditu xede berri horiek.*”

*Lau ehun bat baginen Kanbon iragan ortzegunean. Egun bat ederra eta baliosa iragan dugu. »*

*« Louis Etcheverry Saria » - Eskualtzaleen Biltzarrak nahi izan du saristatu eskuarazko kasetari bat, ikusiz oraikoetan zoin diren jarraikienak, funtsezkoenak, izkiriatzale errexenak. Eskualzale buruzagieri iduritu zaie Jean-Baptiste Dirassar behar zela goretsi. » (Herria, 1969/1/16).*

### **1970ko buruilaren 27an Biltzar Nagusia eta kantaldia Larzabalen**



## **1970ko buruilarren 27an Biltzar Nagusia eta kantaldia Larzabalen**

*Lehen aldikotz igandearekin eginez biltzar hau, entsegu bat nahi zuten egin lendakariak. Ez dukete dolu ! Goizeko 9-etan hasirik, gero mezan, bai eta bazkarian hor ziren egiazko Euskaldunak, kanpoko eta hemengo bereko aita-amak beren haurrekin.(...)*

*Baziren ere jauntto andana bat, beren burua agertu beharrez jinik Xalbador eta Mattinek, Xanpun eta Ezpondak, bai eta Etxahunek kobla zonbaitez irri ederrik horien bizkar egin arazteko baliatu baitire...” Koblariak gai saminak ere aipatu zituzten, hala nola “Joseba Elosegik herria maitez, bere burua sakrifikatu nahi izan duela martiren pare.”*

Egun hartan, kantu zoin-gehiagoka bat egin zen. Banazkakoan artean lehen hiru primen irabazleak izan ziren : Erramun Martikorena, Marie-Léonie Curutcharry eta Babeth Arambeltz. Binazka aldiz : Arberatzeko Etchepare jaun-andereak nagusitu ziren. Xapelketaren ondotik entzun zirenak : Enaut Etchamendy eta Enaut Larralde, Manex Pagola eta Xabier Lete. (Urriaren 1ko Herriako artikulua arabera).

## **1971ko irailaren 12an, elgarretaratzea Itsasun**

*“Urteko bilkuran, ehun presuna baziren etorriak, jakin nahiz eskuararen berri, zertan zen, zer egin zen haren fagore, zer egin gogo zen.*

*Mixel Labeguerie jaun presidentak aipatu zituen jaztik hunateko indarrak eta aitortu eskasak, geroari buruz gazte suharrak deitzen zituela lanerat.” (Herria, 1971/9/23).*

Urte hartan ninduen, hain xuxen, Labegueriek deitu teatroaz mintzatzeko eta zuzendaritzan sartzeko.

Mezatic landa, hil-herrietan jendeak inguratu zuen Oxobi zenaren hobia eta lore-azau bat pausatua izan zen : *“Eskualtzaleek Oxobiz orhoituz”.*

Apairuan lau ehun bat bazkaltiar. Mixel Labeguerie, bere bi semeekin, kantuz ari izan zen...

## **1972ko buruilarren 17an, elgarretatzea Aiherran**



## **1972ko buruilaren 17an, elgarretatzea Aiherran**

«Irailaren 21ko Herriaren lehen orrialde osoa betetzen zuen artikulua Gexan Lantzirik horrelaxe hasten du : *“Eskualtzaleen Biltzarra Aiherran, gero biziago baten haiduru...”*»

*“Protesta bat eta eskari bat moldatuak eta orotaz onartuak izan dira, lehena Baionako eta Paueko gobernu-etxetara bialtzeko, bigarrena Biarritzeko eta Bordaleko O.R.T.F. radio-telebixtategietara helarazteko.*

*Lehenean beraz, E.B.-a gogorki altxatzen da frantses polizak berriki Eustakio Mendizabali egin dion jokoaren kontra. Eta bigarrenak frantssez radio-telebixteri eskatzen du euskarazko emankizunen doblatzea alde batetik, eta bestetik, radioaren indarren emendatzea Xuberon eta Garazi-Baigorriko herriak hunkitzeko gisan, bai eta telebixtako ikus-entzunkizunak bi gatetan zabaltzea.”*

E.B.-k zuzendaritzan, Mende-Berri elkarteko lau gazte sartu ziren : Mattin Larzabal, Léon Haizaguer, Gabriel Oiharzabal eta Ixabel Bariola. Kontseilua utzi zutenak : André Luberriaga, Manu de la Sota, Jean Haritschelhar eta Marie-Jeanne Minaberry.

Aiherran ere 400 bat bazkaltiar ; arratsaldean kantaldia : Xuberotarrak, Benito Lertxundi, Xabier Lete...

## **1973ko buruilaren 30ean, « Euskal pop music » eguna Saran**

Urte honek bihurgune bat izan nahi ukan zuen: biltzar nagusia eta besta eguna ez ziren egun berean ospatu. Urtearen barnean, administrazio kontseilua maizago elkartu zen. Biltzar nagusian berrogeita hamar bat jende ginen, bestara aldiz sekulako mundua bildu zen.

Arratsaldeko kantaldian parte hartu zutenak : Ospital eta Carrère, Etchamendy eta Larralde, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Maria-Lurdes Iriondo, Valencia, Mikel Laboa, Lupe, Eneko Labeguerie, Gorka Knorr. Ondotik, erromeria eta gauean gero dantzaldia. Sarako egun hura zinez bihotz altxagarria izan zen eta denek uste ginuen formula egokia atzemana genuela... indar-berritzeko eta irauteko !

## **1974ko urriaren 6an, euskaltzaleak berriz ere Saran**

*“Herriz herri ibili ondoan, jaz, Saran bildu ziren Euskaltzaleak eta egun horrek arrakasta gaitza ardietsi, 2000ko bat jende parte hartzen zutela. Euskaltzaleen Biltzarrako buruzagiek erabaki dute beraz aurten ere toki berean elgarretaratzea eta egun goxo eta lorios baten pasatzea. Kantari, bertsulari, soinularien ondoan, aurkituko dira liburu eta diska saltegiak. Adin guzietako Eskualtzaleek ukanen dute beraz zer entzun eta zer ikas. (Herria, 1974/10/3).*



## **1975eko azaroaren 22an, hirugarren aldikoz, euskaltzaleak Saran**

Urriaren 23ko Herrian, Ramuntxo Camblong jaunak E.B.ko bilkura baten berri ematen du. Gogoetak eta proposamenak eginez. Eta hauxe idazten du : *“Euskaltzaletasuna sobera aise eta sobera usu beti Euskal Herri barnean mugatu da. Segur inportanta zen baserria, hor mintzatzen baitzen gehienik euskara orain arte. Baina azken urte hauetan kosta aldean karraskan goiti ari da euskaltasuna. Bi aurpegi behar lituzke agertu E. B.-ak. Bat barneari buruz, bestea kosta aldean, bi aurpegi horiek elgarri finki lotuz, elgarren behar gorrian baitaite.”*

Sauveur Narbaitz jaunak aldiz beste kezkarik badu. Ikusiz elkarte berriak sortu direla euskal kulturako alor bakoitzean, Eskualtzaleen Biltzarrak zer egin behar du ? Bizi ala hil ? Eta eskatzen du heldu den bilkura jeneralean galde hori ahoan bilorik gabe egina izan dadin, biltzarkide guzien aintzinean.

Urriaren 30ko Herriaren « Euskal Herrian gaindi » kronikan hauxe irakurtzen dugu : *« E.B. ez ote da eskualzale guziena ? – Joan den astean eskualzale frango ez dira guti harritu Herrian irakurturik aurtengo Biltzarra urriaren 26an eginen zela Saran eta han deliberatuko zela ea behar zuenez hil ala bizi. Harritu, zeren ez baitzuten, usaia den bezela, deirik ukan nehoren ganik. Eta horra non igande goizeko euskal-radioak abisatugaituen, biltzarra berandu dutela azaroaren 22-raino.*

*Agian epe hortaz baliatuko dira buruzagiak euskaltzaleeri jakinarazteko zer egin gogo duten. Bitxi litake, ixilik eta gordeka dotzena bat lagunek delibera balezate Biltzarrak hil behar duela. Itxuren arabera bulegoa hautatua izan da ez Biltzarraren hiltzeko, bainan bizi-arazteko!”*

## **1976ko agorrilaren 28an, Eskualtzaleak Hazparnen**

Eskualtzaleen Biltzarra bildu zen Hazparnen. Meza-emaile Emile Laxague bikario jeneral ohia. Predikari : André Saint-Esteben (orain bikario jeneral dena Pauen)

Narbaitz jaun kalonjeak aipatu zituen berrikitan joanak : Louis Dassance, Charles Iriart, Eppherre bi anaiak. Eskualtzaleek gogoan ukan zituzten ere Broussain jaun mediku euskaltzaina eta Hiriart-Urruty, kasetalaritzaren aita, halaber Domingo Soubelet, Pierre Duhour, Mgr Mirande eta Hazparneko misionestak. – *“Fede bizi batekin, ez ote diote zor mendiz alde huntako Eskualdunek eskuara garbi bat ?”* (Ximun Xori, Herria, 1976/9/9).

*“Haurren sariketa – Maite Barnetche andereak aipatu ditu haurren lanak, Ikas batasunarekin eskuz-esku akulatu saila. Hogoita zombait eskolakoek parte hartu dute sariketa hortan, orotara 176 haurrek. Ez da menturaz anitz, amesten ahal ginukeenaren aldean, bainan berriz abiatze batentzat ez da ere hain gutti. Hiruetan hogoi bat lan agertu dira hautak, eta biga zinez arradoak ».*



## EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

*Bertsu sariketa – Olerki eta bertsu-sariketaz arizan zauku Jean-Baptiste Dirassar. Hogoita hamar bat lan eskuratu direla... (...) Lehen prima, Ernest Alkhat Iholdiarrak eraman du, Xalbador-i eskaini bertsuentzat. Bigarren primarentzat : Manex Arrosagaray Aintzildarra eta Manex Erdozaintzi-Etchart Ibarlarra. Hirugarrena : Jean-Pierre Mendiboure Heletarra eta laugarren Jean-Pierre Iratchet Bidarraitarra.*

*Lauburu ohoratua – Ofizialki 2 urte t’erdi baditu ere, badu sei urte Lauburu abiatua dela bereziki hil-herri zaharrak begiratzeko gisan. Horregatik E.B.-ak ohoratu nahi izan du. Sariaren eskuratzeko etorriak ziren : Aita Martzel Etchehandy, Mikel Duvert eta Jon Etcheverry-Aintchart. (Herria, 1976/9/2).*

### 1977ko urriaren 22an, Euskaltzaleak Baigorriin

*« Jean Haritschelhar, Baigorriko merak, deneri bere herritarren ongi-etorria eginik, erran du ohore zutela baigorriarrek egun hortan zeren « Piarres Lafitte jaunaren aita Baigorri Urdoz-Buztinagan sortua baitzen 1868an ». Ondotik, galde hau eginiz : izan dea sekulan, gure Euskal Herri maitean, zuk bezenbat egin duenik euskararen alde ? ». Erakutsi du Haritschelhar erakasleak Lafittek egin lanen tituluek berek hiruzpalau orrialde betetzen dituztela...*

*Labeguerie jaunak, bera ere Uztaritzen Lafitte kalonjearen eskolier izanak, eman du Herria astekariaren buruzagiaren berri : nola izana den, haurretik, aita guarda errepublikano eta fededun suhar baten seme, halere ait-amak goizik galdurik, izaba biarnes baten ondoan doi bat kaskoindua, geroago berriz eskolan, Mathieu eta Saint-Pierre bi apezpiku-gaien laguntzarekin berriz euskaldundua, demokrazia berritzaile bati buruz aldiz goizik ohartua. Erran du nolako hatseko erakaslea izan den P. Lafitte Uztaritzeko semenarioan. Eta denbora berean hainbeste haur eta gazteren kontzientzia argitzailea. »*

*Aita Villasante euskaltzainburuak eta Emile Larre-k goraiatu zituzten Lafitte euskaltzainaren eta kasetariaren mereximenduak. (Herria, 1977/10/27).*

### 1978an « Charte culturelle basque » bati buruz...

Gure iduriko, urte hartan, Euskaltzaleek ez zutenbiltzar nagusi edo bestarik egin. Herria astekarian ez dut segurik hitz bakar bat ere aurkitu. Baina badakit, nihaurek parte harturik, bilkura andana bat egin ginuela « Charte culturelle basque » pikoan ezartzeko, Renaud d’Elissagaray eta Andde Luberriaga zirelarik xede horren kudeatzaileak.

Eta hona zer irakurtzen dugun Herrian : “Bretoinek ukan dute “charte“ bat Pariseko gobernutik. (...) Euskaldun batzuek gogotik har lezazkete, guti bada guti, Bretoinek ukan abantailak. Bertze batzuek ez dute deusik nahi



## EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA INSTITUT CULTUREL BASQUE

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

*guberniotik, baizik eta present horiek libertatea gutitzen deietela. Hirugarren batzuek, berek galdatu laguntzak onhartzen dituzte, baina ez bertzek galde eginak ; hortan ere ageri da Eskualdunen arteko batasun eskas gorria. Agian halere teoria hutsetarik jaliko gira noizbait, zerbaitetaratzeltzeko. (Herria, 1978/11/2).*

Olerki sariketa – *Bi urtetarik Eskualtzaleen Biltzarra batasunak muntatzen du olerki edo idatzizko bertsu sariketa bat. Duela bi urte, sail horrek ukan zuen arrakasta pollita. Agian aldi huntan ere. Gaia : « Amets bat egin dut ». Saria : 1500 libera (Herria, 78/11/9).*  
Bai zinez, badugu amets egitearen beharra...

### 1979ko buruilaren 16an, Euskaltzaleak Heletan

Etienne Salaberry jaun kalonjeari omenaldia

Labegueriek kudeatu zuen biltzarra. Hastapenean, Labeguerie jaun buruzagiak zenbait berri eman zituen urteko egitekoez eta doluez. Bi dei ere egin : batto « Charte de culture basque » delakoaren alde ; bertzea Euskaldun errefusituen alde.

Ondotik, hiru mintzaldi mamitsu entzun genituen, hizlariak zirela : Mixel Itzaina, Jean-Baptiste Dirassar eta Emile Larre.

Eskualtzaleen Biltzarrak eskaini zion Kanboko artista batek enborki batean zizelkatu zurezko Kristogizon eder bat arradoa eta frango handia. Goresmenak egin zizkieten bai Eskutik pilota kasetariak bai Aingeru Irigaray euskaltzainak.

Berrehunta berrogeita hamar bazkaltiar baginen.

### 1980

Uztailaren 31an, Mixel Labeguerieren arima hegaldatu zen Jean Etchepare, Oxobi, Zerbitzari eta Louis Dassance euskaltzale haundieri buruz.

Urriaren 23ko Herriak dei hau zabaltzen zuen : “ *Urriko azken igande huntan, Euskaltzaleen Biltzarrak bere bilkura nagusia egiten du Beloken, Beneditanoen komentuan. Arratsaldeko biak eta erditan hasiko da. Ondotik, meza Mixel Labeguerie lendakari zenaren arimarentzat. Euskaltzale guziak gomit dira elgarretaratze hortarat.* “

Belokeko bitzarraren ondotik Mixel Itzaina hautatua izan zen, amatxi xahar bat gogorat emaiten zion Euskaltzaleen Biltzarra batasunaren lehendakari. Eta bere liburuan ezartzen dituen hitzekin bururatuko dut : “*Bai euskaltzalea zen Mixel Labeguerie. Eta ez bakarrik hitzez, bere etxetik haste, bere familiako hizkuntza euskara baitzen.* “



**EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA**  
**INSTITUT CULTUREL BASQUE**

Château Lota Jauregia - 64480 Ustaritz - Uztaritze  
Tél. 05 59 93 25 25 - Fax. 05 59 93 06 84 - eke@wanadoo.fr

Eta ene iduriko, Euskaltzaleen Biltzarreko lehendakari zenari egiten ahal diogun omenaldirik hoberena Zerbitzarik idatzi kobla honetan kausitzen da :

*“ Bizi dadin euskara, orai eta gero,  
Berma gaiten hortara, Euskaldunak oro !“*

Daniel LANDART  
Uztaritzen, 2000ko urriaren 14an.

- 
- (1)“Mixel Labeguerie kantu berritzaile eta politika gizona“- Mixel Itzaina – Elkarlanean (1999).  
(2)Administrazio kontseiluko beste kideak hauek ziren : Elissalde jaun apeza, Camino jaun apeza, Andrein Hazparneko jaun apeza, Dutournier Sarako jaun auzapeza, Monzon Telesforo jauna, De La Sota jauna, Michel Eppherre jauna, Félix Ospital jauna, Charles Iriart jauna, Marcel Recalde jauna, Jean Etchepare jauna.

Laburpena :

Mixel Labeguerie (1921-80) hogeitaz urtez egon zen Euskaltzaleen Biltzarra elkarteko lehendakari, 1960tik zendu arte. Louis Dassance jaunaren ondotik, saiatu zen ipar Euskal Herriko elkarte xaharrenaren eta luzaz bakarria izan denaren pixka bat mugiarazten eta arraberritzen. Biltzar nagusi egunetan, 700-800 jendetaraino biltzen ziren bazkaltzeko. Labeguerie lehendakari izan zen garaian sortu ziren beste elkarte franko, hala-nola antzerki, bertsu, dantza, kantu sailetan, Euskaltzaleen Biltzarrak ordu arte egiten zuen lana mugatuz.

Hitz giltzak

Labeguerie –Euskaltzaleen Biltzarra - Herria – Mixel Itzaina